|------------------------------------|-----|-----|-----|---|----|
| O <sub>3</sub> Jaizkibel           | 365 | 100 | 105 | 4 | 11 |
| O <sub>3</sub> Larrabetzu          | 365 | 100 | 90  | 0 | 0  |
| O <sub>3</sub> Lasarte             | 365 | 100 | 99  | 0 | 1  |
| O <sub>3</sub> Las Carreras        | 361 | 99  | 104 | 0 | 0  |
| O <sub>3</sub> Llodio              | 365 | 100 | 86  | 0 | 0  |
| O <sub>3</sub> M <sup>a</sup> Diaz | 364 | 100 | 81  | 0 | 0  |
| O <sub>3</sub> Montorra            | 358 | 98  | 86  | 0 | 0  |
| O <sub>3</sub> Mundaka             | 365 | 100 | 94  | 1 | 3  |
| O <sub>3</sub> Muskiz              | 365 | 100 | 91  | 0 | 0  |
| O <sub>3</sub> Pagoeta             | 363 | 99  | 101 | 1 | 4  |
| O <sub>3</sub> Parque Europa       | 365 | 100 | 90  | 0 | 0  |
| O <sub>3</sub> Puio                | 365 | 100 | 96  | 0 | 0  |
| O <sub>3</sub> San Julian          | 323 | 88  | 100 | 1 | 0  |
| O <sub>3</sub> Serantes            | 365 | 100 | 93  | 0 | 4  |
| O <sub>3</sub> Urkiola             | 365 | 100 | 104 | 2 | 13 |
| O <sub>3</sub> Usurbil             | 365 | 100 | 98  | 0 | 1  |
| O <sub>3</sub> Valderejo           | 363 | 99  | 107 | 5 | 21 |
| O <sub>3</sub> Zalla               | 363 | 99  | 96  | 0 | 5  |
| O <sub>3</sub> Zelaleta            | 363 | 99  | 91  | 0 | 0  |
| O <sub>3</sub> Zubietta            | 365 | 100 | 96  | 0 | 0  |
| O <sub>3</sub> Zumarraga           | 365 | 100 | 92  | 0 | 1  |

Zutabe grafikoan 93,2P-k azken bost urteetan (2017-2021) izan duen balioa agertzen da eta erreferentzia gisa helburu-balioa nabarmendu da.

### O<sub>3</sub>: Eguneko zortzi orduko maximoen urteko 93,2 P



### 3.6 BENTZENOA (C<sub>6</sub>H<sub>6</sub>)

Honakoa da **bentzenoarentzat** airearen kalitatearen hobekuntzari dagokion araudian ezarritako muga:

| Kutsatzailea     | Batez bestekoa | Muga-balioa         | Betetze-data |
|------------------|----------------|---------------------|--------------|
| <b>Bentzenoa</b> | Urtekoa        | 5 µg/m <sup>3</sup> | 2010/01/01   |


Jarraian burututako kalkuluak agertzen dira.

| 2021. urtea - Kasuen prozesamenduaren laburpena (ordu balioak) |      |              |                                     |
|----------------------------------------------------------------|------|--------------|-------------------------------------|
| Estazioa                                                       | N    | Portzentajea | Batez bestekoa (µg/m <sup>3</sup> ) |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Abanto                           | 8523 | 97           | 0.24                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Gasteiz hirib.                   | 8701 | 99           | 0.39                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Beasain                          | 8688 | 99           | 0.46                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Lasarte                          | 8716 | 100          | 0.21                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Las Carreras                     | 8093 | 92           | 0.60                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Mazarredo                        | 8159 | 93           | 0.26                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Munoa                            | 7999 | 91           | 0.39                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Muskiz                           | 7810 | 89           | 0.29                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> San Julián                       | 8457 | 97           | 0.39                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Zelaieta                         | 6271 | 72           | 0.31                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Durango                          | 7489 | 85           | 1.04                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Zubieta                          | 8694 | 99           | 0.26                                |
| C <sub>6</sub> H <sub>6</sub> Usurbil                          | 8708 | 99           | 0.32                                |

\*Zelaietako (Zornotza) BTX neurgailua hondatuta egon da 2021eko 09/09tik 16/11ra.

Easoko BTX neurgailuak hainbat matxura izan ditu 2021ean. Matxura horien ondorioz, ekipoa bidali dute hainbat aldiz konpontzera; horregatik, datu asko galdu dira ( % 72). Beraz, denbora-estaldura ez da adierazgarritzat hartu urteko batezbestekoa kalkulatzeko.

2017-2021 urteetako datuen kalkuluak zutabe grafikoan irudikatu dira. Bertan ezarritako ebaluazio-atalaseak eta urteko muga-balioa gehitu dira.



### 3.7 METAL ASTUNAK (Pb, As, Cd eta Ni)

Lau estaziotan egindako metalen neurketen emaitzak aurkezten dira: M<sup>a</sup> Díaz de Haro (Bilbo), Erandio (Erandio), Tolosa hiribidea (Donostia) eta Martxoaren Hirua (Gasteiz).

Neurketen emaitzek adierazten dute balio asko erabiltzen den teknikaren Detekzio Mugaren azpitik daudela. Hau da, balio gehienak oso baxuak dira.

Nahiz eta balio-banaketa hauekin ez den aholkatzen emaitzak deskribatzeko batezbestekoa erabiltzea, balio hau txertatu da ezarritako xede- eta muga-balioen betetze-maila ezagutzeko. Batezbestekoa kalkulatzeko kontuan izan dira DMak (determinazio-mugatik beherako balioak), esaterako DM/2, airearen kalitate-datuak trukatzeko gida nazionalak ezartzen duen eran, 2011/850/EB Erabakiaren arabera.

Datuak aurkezteko datu estatistiko hauek erabili dira: **mediana** (P50) eta **P75 eta P90** pertzentilak. Halaber, datu guztien gehieneko balioa aurkeztu da. Datu guztien banaketa grafikoki aurkeztu da kaxa-diagrametan. Diagrama horietan irudikatu dira Q2-a (bigarren kuartila), batezbestekoa eta balio atipikoak. Batezbestekoa ere adierazi da, nahiz eta kasu hauetan DMren azpitik egon.

Horrez gain, metal bakoitzerako 2017tik 2021era bitarteko urteko batez bestekoak dituen barra-grafiko bat aurkezten da.

### 3.7.1 Beruna (Pb)



Honakoa da **berunarentzat** (Pb) airearen kalitatearen hobekuntzari dagokion araudian ezarritako muga:

| Kutsatzailea  | Batez bestekoa | Muga-balioa           | Betetze-data |
|---------------|----------------|-----------------------|--------------|
| <b>Beruna</b> | Urtekoa        | 0,5 µg/m <sup>3</sup> | 2005/01/01   |

Honako taulan ikus daiteke laginen kopurua determinazio-mugatik behera (DMB) dagoela. Determinazio-mugatik behera dauden estatistikoak <DM laburtzapenarekin adierazten dira.

| 2021. urtea – Pb Kasuen prozesamenduaren laburpena (eguneko datuen balioak µg/m <sup>3</sup> -tan) |     |    |    |      |     |       |       |       |                |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|----|----|------|-----|-------|-------|-------|----------------|
| Estazioa                                                                                           | N   | %  | MA | %DMA | 50P | 75P   | 90P   | Max   | Batez bestekoa |
| Pb M <sup>a</sup> Díaz                                                                             | 176 | 48 | 30 | 74   | <LD | 0.021 | 0.039 | 0.078 | 0.017 (<DM)    |
| Pb Erandio                                                                                         | 218 | 60 | 32 | 61   | <LD | 0.030 | 0.050 | 0.15  | 0.023          |
| Pb Tolosa hirib.                                                                                   | 169 | 46 | 67 | 99   | <LD | <LD   | <LD   | 0.074 | 0.010 (<DM)    |
| Pb Martxoaren Hirua                                                                                | 167 | 46 | 43 | 86   | <LD | <LD   | 0.030 | 0.11  | 0.015 (<DM)    |

DM<0.02 µg/m<sup>3</sup>



### 3.7.2 Artsenikoa (As)

Airearen kalitatea hobetzeko araudian, **artsenikorako** (As) ezarritako muga honako hau da:



| Kutsatzailea | Batez bestekoa | Helburu-balioa           | Betetze-maila |
|--------------|----------------|--------------------------|---------------|
| <b>As</b>    | Urtekoa        | 6 $\text{ng}/\text{m}^3$ | 2013/01/01    |

Artsenikoaren kasuan, determinazio-mugaren behetik dauden datuen ehunekoa oso altua da, batez ere Tolosa hiribidean eta Martxoaren Hiruan. Hau da, kontzentrazioak oso baxuak dira.

### 2021 urtea – As kasuen prozesamenduaren laburpena (eguneko datuen balioak $\mu\text{g}/\text{m}^3$ -tan)

| Estazioa               | N   | %  | MA  | %DMA | 50P  | 75P  | 90P  | Max | Batez bestekoa |
|------------------------|-----|----|-----|------|------|------|------|-----|----------------|
| As M <sup>a</sup> Díaz | 176 | 48 | 78  | 44   | 0.48 | 0.81 | 1.1  | 2.1 | 0.58           |
| As Erandio             | 218 | 60 | 95  | 44   | 0.44 | 0.63 | 1.1  | 2.4 | 0.52           |
| As Tolosa hirib.       | 169 | 46 | 145 | 86   | <LD  | <LD  | 0.46 | 1.1 | 0.25 (<LD)     |
| As Martxoaren Hirua    | 167 | 46 | 116 | 69   | <LD  | 0.47 | 0.77 | 2.3 | 0.36 (<LD)     |

DM<0.4  $\text{ng}/\text{m}^3$





### 3.7.3 Kadmioa (Cd)

Airearen kalitatea hobetzeko araudian, **kadmiorako (Cd)** ezarritako muga honako hau da:


| Kutsatzailea | Batez bestekoa | Helburu-balioa      | Betetze-maila |
|--------------|----------------|---------------------|---------------|
| <b>Cd</b>    | Urtekoa        | 5 ng/m <sup>3</sup> | 2013/01/01    |


Berriz nabarmendu behar da Martxoaren Hiruko eta Tolosa hiribideko estazioetan soilik 8 eta 12 laginetan detektatu dela, hurrenez hurren. Erandio da Cd kontzentrazio altuenak dituen puntua.

**2021 urtea –Cd kasuen prozesamenduaren laburpena (eguneko datuen balioak µg/m<sup>3</sup>-tan)**

| Estazioa               | N   | %  | MA  | %DMA | 50P  | 75P | 90P | Max | Batez bestekoa |
|------------------------|-----|----|-----|------|------|-----|-----|-----|----------------|
| Kd M <sup>a</sup> Díaz | 176 | 48 | 152 | 86   | <LD  | <LD | 0.5 | 1.6 | 0.26 (<LD)     |
| Kd Erandio             | 218 | 60 | 86  | 39   | 0.53 | 1.0 | 2.4 | 14  | 1.1            |
| Kd Tolosa hirib.       | 169 | 46 | 164 | 97   | <LD  | <LD | <LD | 6.7 | 0.25 (<LD)     |
| Kd Martxoaren Hirua    | 167 | 46 | 165 | 99   | <LD  | <LD | <LD | 10  | 0.26 (<LD)     |

DM<0.4 ng/m<sup>3</sup>





### 3.7.4 Nikela (Ni)



Airearen kalitatea hobetzeko araudian, **nikelerako (Ni)** ezarritako muga honako hau da:

| Kutsatzailea | Batez bestekoa | Helburu-balioa       | Betetze-maila |
|--------------|----------------|----------------------|---------------|
| <b>Ni</b>    | Urtekoa        | 20 ng/m <sup>3</sup> | 2013/01/01    |

Kasu honetan, nikela Tolosa hiribideko eta Martxoaren Hiruaren plaza ko lagin gutxi batzuetan atzeman zen. Erandio da Ni kontzentrazio altuenak dituen puntua.

| 2021 urtea –Ni kasuen prozesamenduaren laburpena (eguneko datuen balioak µg/m <sup>3</sup> -tan) |     |    |     |      |     |     |      |      |                |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|----|-----|------|-----|-----|------|------|----------------|
| Estazioa                                                                                         | N   | %  | MA  | %DMA | 50P | 75P | 90P  | Max  | Batez bestekoa |
| Ni Mª Díaz                                                                                       | 176 | 48 | 110 | 63   | <LD | 5.2 | 9.7  | 23.0 | 4.30           |
| Ni Erandio                                                                                       | 218 | 60 | 107 | 49   | 4.0 | 7.0 | 15.0 | 40   | 6.1            |
| Kd Tolosa hirib.                                                                                 | 169 | 46 | 57  | 34   | <LD | <LD | <LD  | 5.6  | 2.1 (<LD)      |
| Kd Martxoaren Hirua                                                                              | 167 | 46 | 54  | 32   | <LD | <LD | 2.9  | 13   | 2.4 (<LD)      |

DM<4 ng/m<sup>3</sup>



### 3.8 Bentzo(a)pireno (B(a)P)

Metaletarako bezala, sarearen lau estazioetan egindako neurketen emaitzak aurkezten dira: **Mª Díaz de Haro (Bilbao), Erandio, Tolosa hiribidea (Donostia) eta Martxoaren Hirua (Gasteiz).**

Neurketen emaitzekin bat, lau estazioetan konposatua detektatzeko erabilitako teknikaren balio gehienak detektatzen den mugako balioetatik behera daude. Hau da, balio gehienak oso baxuak dira. Datuak aurkezteko batezbestekoaren (P50) datu estatistikoa erabili da, datu estatistiko sendoa baita, eta P75 eta P90 pertzentilak. Metalen emaitzetan bezala, eguneko batez besteko gehieneko balioa ere txertatu da balioen banaketa hobeto ezagutzeko.

Lortutako emaitzak kutxa-diagrametan aurkezten dira, eta horietan kuartil arteko tartea adierazten da, balio atipikoekin. Airearen kalitateari buruzko araudian ezarritako muga-balioaren betetze-maila ezagutzeko batezbestekoaren datua ere sartu da.

Airearen kalitatea hobetzeko araudian, konposatu honetarako ezarritako muga honako hau da:


| Kutsatzailea           | Batez bestekoa | Helburu-balioa      | Betetze-maila |
|------------------------|----------------|---------------------|---------------|
| <b>Bentzo(a)pireno</b> | Urtekoa        | 1 ng/m <sup>3</sup> | 01/01/2013    |


Halaber, bentzo(a)pirenoaren kasuan, detekzio-mugatik beherako datuen kopurua handia da. María Díaz de Haro kalean hidrokarburo hau 14 laginetan detektatu da; Erandion 19tan; Tolosa hiribidean 17tan; eta Martxoaren Hiruan 18tan.

**2021 urtea –B(a)P kasuen prozesamenduaren laburpena (eguneko datuen balioak µg/m<sup>3</sup>-tan)**

| Estazioa                  | N   | %  | MA | %DMA | 50P | 75P   | 90P  | Max  | Batez bestekoa |
|---------------------------|-----|----|----|------|-----|-------|------|------|----------------|
| B(a)P M <sup>a</sup> Díaz | 108 | 30 | 81 | 75   | <LD | 0.063 | 0.19 | 0.76 | 0.091          |
| B(a)P Erandio             | 154 | 42 | 86 | 56   | <LD | 0.15  | 0.28 | 0.84 | 0.13           |
| B(a)P Tolosa hirib        | 108 | 30 | 95 | 88   | <LD | <LD   | 0.17 | 0.49 | 0.075          |
| B(a)P Martxoaren Hirua    | 108 | 30 | 93 | 86   | <LD | <LD   | 0.12 | 0.64 | 0.071          |

DM< 0.1ng/m<sup>3</sup>





### 3.9 EMAITZEN LABURPENA

- **SO<sub>2</sub>**

SO<sub>2</sub> mailak airearen kalitateari buruzko araudian ezarritako muga barruan daude. Ez da inola ere gainditu araudian ordu-kontzentrazioetarako ezarritakoa, hau da, 350 orduko balioa urtean 24 aldiz baino gehiagotan ezin dela gainditu. Halaber, ez zen gainditu eguneko batez bestekoetarako ezarritako muga-balioa. Abantoko estazioan (219 µg/m<sup>3</sup>) eta Las Carrerasen (190 µg/m<sup>3</sup>) bildu ziren ordu-kontzentrazioetarako erregistrorik altuenak.

- **NO<sub>2</sub>**

NO<sub>2</sub>-aren kasuan, airearen kalitateari buruzko araudian ezarritako muga-balioak betetzen dira. Hiriburuetako trafiko-estazioetan —Ategorrieta (Donostia), Easo (Donostia), Gasteiz hiribidea (Gasteiz), Mª Diaz de Haro (Bilbo) Mazarredo (Bilbo)—, ez dago 200 µg/m<sup>3</sup>-tik gorako orduko baliorik. Estazio horien balio maximoak 113-116 µg/m<sup>3</sup> artekoak izan ziren.

Urteko batezbesteko altuenak izan zituzten estazioak Easo eta Maria Diaz de Haro izan ziren, hurrenez hurren, 26 eta 29 µg/m<sup>3</sup>-ko batezbestekoak edukita.

Mª Diaz de Haron (Bilbo), 2017an 40 µg/m<sup>3</sup>-ko urteko muga-balioa gainditu zuen trafiko-estazioa, 2018an urteko batezbestekoa 39 µg/m<sup>3</sup>-koa izan zen; 2019an, 36 µg/m<sup>3</sup>-koa; 2020an, 26 µg/m<sup>3</sup>-koa; eta 2021ean, 29 µg/m<sup>3</sup>-koa.

Oro har, urteko batezbestekoek, 2020ko batezbestekoekin alderatuta, gora egin dute estazioen % 87an, orduan COVIDagatik konfinamenduak eta joan-etorrien debekuak eragin baitzizkieten. 2021ean erregistratutako mailak 2019koak baino txikiagoak izan dira, oraindik

- **Partikulak (PM<sub>10</sub> eta PM<sub>2,5</sub>)**

PM<sub>10</sub> zein PM<sub>2,5</sub> partikulen mailak airearen kalitateari buruzko araudiak ezartzen dituen mugen barruan daude. PM<sub>10</sub>-en urteko batezbestekoari dagokionez, urteko batezbestekoen tarteak 8-23 µg/m<sup>3</sup> artekoak da. Mundaka, Pagoeta eta Valderejo landa-estazioen urteko batezbestekoak 8-12 µg/m<sup>3</sup> artekoak izan ziren. Hiri-estazioen urteko batezbestekoak 13-23 µg/m<sup>3</sup> artekoak izan ziren.

2021ean estazio gehienetako erregistratutako eguneko batezbesteko maximoak otsailaren 19an izan ziren, Saharatik zetorren aire-intrusio gertakari batekin batera.

Estazio guztien PM<sub>2,5</sub> partikulen urteko balioak araudiak ezartzen duen urteko mugaren azpitik daude. Urteko batezbestekoak hauek izan ziren: 5.1 eta 4.9 µg/m<sup>3</sup>-ko minimoak, hurrenez hurren Pagoetan eta Valderejon erregistratutakoak (landa-estazioak), eta Barakaldoko eta Puyoko urteko 12 µg/m<sup>3</sup>-ko batezbesteko maximoak.

- **CO**

CO neurketak oso baxuak izan dira estazio guztietan, eta ebaluazioaren behe-atalasearen oso azpitik daude. Orduko daturik altuenak Erandioiko trafikoko estazioan jaso dira (Jose Luis Goyoaga etorbidean, z/g, Altzagako pasabidean). Estazio hori BI-711 errepidearen ondoan dago.

- **Ozonoa**

O<sub>3</sub>-ari dagokionez, ez zen erregistratu 180 µg/m<sup>3</sup>-tik gorako baliorik (herritarrei informazioa emateko atalasea).

Ez da gaitzitu giza osasuna babesteko helburu-balioa (hiru urtez, gehienez 25 aldiz 120 µg/m<sup>3</sup>-tik gorako batezbestekoa)

120 µg/m<sup>3</sup>-ko epe luzerako helburua gehiagotan gaitzitu duten estazioak hauek izan dira: Valderejo eta Jaizkibel. Estazio horiek landa-eremuan eta leku altuetan daude.

- **Bentzenoa**

Bentzenoaren urteko batezbestekoak baxuak izan dira eta urteko araudiak ezartzen duen mugaren barnean daude (5 µg/m<sup>3</sup>).

- **Metalak eta Bentzo(a)pirenoa**

Metal eta bentzo(a)pireno mailak oso baxuak izan dira neurketak egin diren lau estazioetan: M<sup>a</sup> Díaz de Haro (Bilbo), Erandio (Erandio), Tolosa hiribidea (Donostia) eta Martxoaren Hirua (Gasteiz). Nabarmenezkoa da detekzioarako gutxienezko mugatik beherako datuen ehuneko handia dagoela, batez ere Tolosa hiribidean eta Martxoaren Hiruan. Estazio guztietatik Erandio da Cd, Ni, As, Pb eta bentzoapireno maila altuenak dituenak.

Oro har, 2021ean 4 metalen eta bentzo(a)pirenoaren kontzentrazioen urteko batezbestekoak 2019koen antzekoak izan dira; izan ere, 2020an mailak oso txikiak izan ziren COVID-efektuaren ondorioz. Horietatik guztietatik Erandioko puntuan detektatu dira Cd, Ni, Pb eta bentzo(a)pireno mailarik altuenak. As kasuan, M<sup>a</sup> Díaz de Haron maila altuagoak detektatzen dira.

## 4 AIREAREN KALITATEAREN HELBURUEN URTEKO EBALUAZIOA EAE OSOAN KRIGING BIDEZ


Gaur egun AKI (airearen kalitate-indizea) eta NO<sub>2</sub>, PM<sub>10</sub> eta ozonoaren (udan) eguneko kontzentrazioak kriging bidez zenbatesten dira. Puntuak balio-sare moduan zenbatesteko metodo geostatistiko bat da kriging-a.

NO<sub>2</sub>, PM<sub>10</sub> eta ozonorako Sareko estazioetan erregistratutako neurketetatik lortutako urteko estatistikoetatik abiatuta, mapa batzuk kalkulatu dira metodo horrekin. Horrela, EAEko lurralde osoko airearen kalitatearen egoeraren ikuspegi espaziala lortu da.


Jarraian, NO<sub>2</sub>, PM<sub>10</sub> eta ozonoaren mapak daude. Halaber, mapetatik ateratako datuak daude, kontzentrazio-tarte zehatz batzuen esposiziopean izandako biztanleriarena hain zuzen. Grafiko hauek lortutako sareetatik atera dira.

### 4.1 NO<sub>2</sub> mapak eta NO<sub>2</sub> mailen esposiziopeko biztanleriaren zenbatespena

NO<sub>2</sub>-rako 2020ko orduko batezbestekoen 99,79 pertzentilerako mapa bat eta urteko batez bestekorako mapa bat kalkulatu dira.









Kriging bidez kalkulaturako mapekin NO2 kontzentrazio-tarte bakoitzaren esposiziopean dagoen biztanleriaren ehunekoa zenbatetsi daiteke.

Orduko datuen 99,79 pertzentilekin kalkulatu den mapatik abiatuta honako hau zenbatetsi daiteke: herritarren % 71,6k 60-80  $\mu\text{g}/\text{m}^3$  tarteko orduko balioak jasan ditu eta % 9,8k 80-100  $\mu\text{g}/\text{m}^3$  tarteko orduko balioak. Grafikoa hau da:




Urteko muga-balioarekiko biztanleriaren esposizioari dagokionez, modeloak estimatzen du ez zela egon 32 µg/m<sup>3</sup> baliotik gora jasan zuen biztanlerik. Modeloak estimatzen du gehiengoak (% 72,9) 14-20 µg/m<sup>3</sup> arteko kontzentrazio-tarteko mailak jasan zituela. Grafikoa honako hau da:




## 4.2 Ozono mapa eta ozono-mailen esposiziopeko biztanleriaren zenbatespena

Ozonorako mapa bat kalkulatu da zortzi orduko mugikorren eguneko gehienekoen 93,2 pertzentilerako. Mapan ikus daiteke altueran dauden landa-eremuetan eta klima mediterraneoa dagoen eremuan mailak handiagoak direla.




Grafikoan ozonoaren kontzentrazio-maila bakoitzaren eraginpean dagoen biztanleriaren ehunekoa agertzen da. Maila horiek Kriging metodoaren bidez kalkulatu dira, ozonoa neurtzen den estazioetako zortzi ordu mugikor maximoen P93.2-ren oinarritzko datua erabiliz. Ereduaren arabera, 90-100 µg/m<sup>3</sup> arteko kontzentrazio-tartearen eraginpean egon zen biztanleriaren ehunekoa handiena, hau da, % 64,6. Grafikoa honako hau da:




#### 4.3 PM<sub>10</sub> mapak eta PM<sub>10</sub> mailen esposiziopeko biztanleriaren zenbatespena


PM<sub>10</sub>-erako mapa bat kalkulatu da eguneko batezbestekoen 90,4 pertzentilerako, baita urteko batez bestekorako mapa bat ere.








Eguneko balioen P90,4rako kalkulaturako ereduaren arabera, biztanleriaren % 70,5 25-30  $\mu\text{g}/\text{m}^3$  tartearen eraginpean egon zen, eta % 26,1 20-25  $\mu\text{g}/\text{m}^3$  tartearen eraginpean. Hona hemen grafikoa:



PM<sub>10</sub>-ren kontzentrazioen eraginpeandagoen biztanleria-grafikoan ikus daitekeenez, biztanleriaren % 66,7 16-20 µg/m<sup>3</sup> arteko mailen eraginpean egon zen eta % 31,4 12-16 µg/m<sup>3</sup> arteko mailen eraginpean, urteko batezbestekoa jasotzen duen kalkulaturako ereduaren arabera .






## 5 AIREAREN KALITATEAREN EGOERA EUSKADIN, OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEAK EZARRITAKOAREN ALDERA

Airearen kalitatearen muga-balioak airearen kalitatea hobetzeki buruzko 102/2011 Errege Dekretuan ezarrita daude. Errege-dekretu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 21eko airearen kalitateari eta Europan atmosfera garbiagoa edukitzeari buruzko 2008/50/EE Zuzentarauaren balioak ekartzen ditu. Batasunaren esparruan, ez-betetzeak lege-estandar horietan ezarritako balioen arabera zehazten dira, eta, beraz, araudia betetzen den ala ez ezagutzeko aplikatzen dira. Araudi horretaz gain, OMEk 2005ean gida batzuk argitaratu zituen; horietan, airearen kalitatean aztertzen diren kutsatzaileen erreferentzia-balio batzuk daude. Balio horiek erreferentziako estandarrak dira, eta gobernuek helburutzat har ditzakete, tokiko baldintzen arabera. 2021eko azaroan, OMEk erreferentziako gida-balio berriak argitaratu zituen. Hona hemen balio horiek:

| Kutsatzaileak           | OMEren gida-balioak<br>argitaratutakoak               | 2006an | OMEren gida-balioak,<br>argitaratutakoak              | 2021ean |
|-------------------------|-------------------------------------------------------|--------|-------------------------------------------------------|---------|
| <b>NO<sub>2</sub></b>   | 40 µg/m <sup>3</sup> urteko batez bestekoa            |        | 10 µg/m <sup>3</sup> urteko batez bestekoa            |         |
| <b>PM<sub>10</sub></b>  | 20 µg/m <sup>3</sup> urteko batez bestekoa            |        | 15 µg/m <sup>3</sup> urteko batez bestekoa            |         |
| <b>PM<sub>2.5</sub></b> | 10 µg/m <sup>3</sup> urteko batez bestekoa            |        | 5 µg/m <sup>3</sup> urteko batez bestekoa             |         |
| <b>Ozono</b>            | 100 µg/m <sup>3</sup> eguneko 8 orduko maximoa urtean |        | 100 µg/m <sup>3</sup> eguneko 8 orduko maximoa urtean |         |




- *OMEren 2006ko gida-balioei dagokienez*

Balio horiek estazioetarako kalkulaturako kontzentrazioen datuekin alderatu dira. Kalkulatutako datu estatistikoen arabera, % 100ek NO<sub>2</sub>-rako ezarritako gida-balioa bete zuten (49 neurketa), % 94 PM<sub>10</sub>-erako ezarritako gida-mailaren barruan daude (47 neurketetatik 44 neurketa) eta % 79 PM<sub>2.5</sub>-erako ezarritakoan (33 neurketetatik 26 neurketa). Ozonoaren kasuan, kasu gehienetan ez da betetzen OMEk argitaratutako giden erreferentzia-balioa.



- *OMEren 2021eko gida-balioei dagokienez*

Balio horiek estazioetarako kalkulaturako kontzentrazioen datuekin alderatu dira. Kalkulatutako datu estatistikoen arabera, % 29k soilik beteko lukete NO<sub>2</sub>-rako ezarritako gida-balioa (14neurketa 49 neurketetik), estazio guztien % 40 PM10-erako ezarri den gida-mailaren barruan daude (47 neurketetatik 19 neurketa) eta PM2.5 kasuan, 33 PM2.5 neurketetatik, 32 neurketa erreferentziazko mailaren gainetik egon ziren. Valderejoren Pm2.5 neurria bakarrik egon zen 5 µg/m<sup>3</sup>-tik behera. Ozonorako, kasu gehienetan ez da betetzen OMEk argitaratutako giden erreferentzia-balioa.





## 6 ERREFERENTZIAK ETA ESTEKAK

### 6.1 Estekak

- Airearen kalitateari buruzko legedia (INGURUMENA):  
<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/informazioa/airearen-kalitate-eta-atmosferarako-emisioei-buruzko-araudia/r49-3614/eu/>
- EAEko airearen kalitatea kontrolatzeko sarea (Ingurumena):  
<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-20775/eu/>
- Espainiako ebaluazioa eta airearen kalitateari buruzko datuak  
<https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/atmosfera-y-calidad-del-aire/calidad-del-aire/evaluacion-datos/>

### 6.2 Erreferentziak

- **102/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, airearen kalitatea hobetzeari buruzkoa.**  
<http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2011-1645>
- **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/50/EE Zuzentaraua, 2008ko maiatzaren 21ekoa, giroko airearen kalitateari eta Europan atmosfera garbiagoa edukitzeari buruzkoa.**  
<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2008:152:0001:0044:ES:PDF>
- **Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ozonoa ebaluatzeko proposatutako zonifikazioa.**  
[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ozono\\_troposferico/eu\\_def/Ozono%20zonifikazioa%202.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ozono_troposferico/eu_def/Ozono%20zonifikazioa%202.pdf)

### 6.3 Euskadiko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sareak dituen estazioen zerrenda

| ESTAZIOAK | AIREAREN KALITATE<br>EBALUATZEKO EREMUA | UDALA | LURRALDEA |
|-----------|-----------------------------------------|-------|-----------|
|-----------|-----------------------------------------|-------|-----------|

|                  |                           |                  |          |
|------------------|---------------------------|------------------|----------|
| ABANTO           | NERBIOI BEHEREA           | ABANTO- ZIERBENA | BIZKAIA  |
| AGURAIN          | ARABAKO LAUTADA           | AGURAIN          | ARABA    |
| ALGORTA          | NERBIOI BEHEREA           | GETXO            | BIZKAIA  |
| ALONSOTEGI       | NERBIOI BEHEREA           | ALONSOTEGI       | BIZKAIA  |
| ANDOAIN          | DONOSTIALDEA              | ANDOAIN          | GIPUZKOA |
| AÑORGA           | DONOSTIALDEA              | DONOSTIA         | GIPUZKOA |
| ARRAIZ (MENDIA ) | NERBIOI BEHEREA           | BILBAO           | BIZKAIA  |
| ATEGORRIETA      | DONOSTIALDEA              | DONOSTIA         | GIPUZKOA |
| GASTEIZ HIRIB.   | ARABAKO LAUTADA           | VITORIA-GASTEIZ  | ARABA    |
| TOLOSA HIRIB.    | KOSTALDEA                 | DONOSTIA         | GIPUZKOA |
| AZPEITIA         | GOIERRI                   | AZPEITIA         | GIPUZKOA |
| BANDERAS (meteo) | NERBIOI BEHEREA           | BILBAO           | BIZKAIA  |
| BARAKALDO        | NERBIOI BEHEREA           | BARAKALDO        | BIZKAIA  |
| BASAURI          | NERBIOI BEHEREA           | BASAURI          | BIZKAIA  |
| BEASAIN          | GOIERRI                   | BEASAIN          | GIPUZKOA |
| BOROA METEO      | IBAIZABAL DEBAGOIENA      | ZORNOTZA         | BIZKAIA  |
| CASTREJANA       | NERBIOI BEHEREA           | BARAKALDO        | BIZKAIA  |
| DURANGO          | IBAIZABAL DEBAGOIENA      | DURANGO          | BIZKAIA  |
| EASO             | DONOSTIALDEA              | DONOSTIA         | GIPUZKOA |
| ELCIEGO          | EAEKO ERRIBERA            | ELTZIEGO         | ARABA    |
| ERANDIO          | NERBIOI BEHEREA           | ERANDIO          | BIZKAIA  |
| EUROPA           | NERBIOI BEHEREA           | BILBAO           | BIZKAIA  |
| FARMAZIA         | ARABAKO LAUTADA           | VITORIA-GASTEIZ  | ARABA    |
| FERIA (meteo)    | NERBIOI BEHEREA           | BILBAO           | BIZKAIA  |
| HERNANI          | DONOSTIALDEA              | HERNANI          | GIPUZKOA |
| JAIZKIBEL        | DONOSTIALDEA              | HONDARRIBIA      | GIPUZKOA |
| LARRABETZU       | IBAIZABAL DEBAGOIENA      | LARRABETZU       | BIZKAIA  |
| LAS CARRERAS     | NERBIOI BEHEREA           | ABANTO- ZIERBENA | BIZKAIA  |
| LASARTE          | DONOSTIALDEA              | LASARTE-ORIA     | GIPUZKOA |
| LEZO             | DONOSTIALDEA              | LEZO             | GIPUZKO  |
| LLODIO           | ENKARTERRI-NERBIOI GARAIA | LAUDIO           | BIZKAIA  |
| LOS HERRAN       | ARABAKO LAUTADA           | VITORIA-GASTEIZ  | ARABA    |
| Mª DIAZ DE HARO  | NERBIOI BEHEREA           | BILBAO           | BIZKAIA  |
| MAZARREDO        | NERBIOI BEHEREA           | BILBAO           | BIZKAIA  |
| MONDRAGON        | IBAIZABAL DEBAGOIENA      | ARRASATE         | GIPUZKOA |
| MONTORRA         | IBAIZABAL DEBAGOIENA      | ZORNOTZA         | BIZKAIA  |
| MUNDAKA          | KOSTALDEA                 | MUNDAKA          | BIZKAIA  |
| MUNOA            | NERBIOI BEHEREA           | BARAKALDO        | BIZKAIA  |
| MUSKIZ           | NERBIOI BEHEREA           | MUSKIZ           | BIZKAIA  |
| NAUTICA (meteo)  | NERBIOI BEHEREA           | PORTUGALETE      | BIZKAIA  |
| PAGOETA          | KOSTALDEA                 | AIA              | GIPUZKOA |
| PUIO             | DONOSTIALDEA              | DONOSTIA         | GIPUZKOA |
| SAN JULIAN       | NERBIOI BEHEREA           | MUSKIZ           | BIZKAIA  |



|                             |                           |                 |          |
|-----------------------------|---------------------------|-----------------|----------|
| <b>SAN MIGUEL</b>           | NERBIOI BEHEREA           | BASAURI         | BIZKAIA  |
| <b>SANGRONIZ</b>            | NERBIOI BEHEREA           | SONDIKA         | BIZKAIA  |
| <b>SANTURTZI</b>            | NERBIOI BEHEREA           | SANTURTZI       | BIZKAIA  |
| <b>SERANTES</b>             | NERBIOI BEHEREA           | SANTURTZI       | BIZKAIA  |
| <b>SESTAO</b>               | NERBIOI BEHEREA           | SESTAO          | BIZKAIA  |
| <b>MARTXOAREN<br/>HIRUA</b> | ARABAKO LAUTADA           | VITORIA-GASTEIZ | ARABA    |
| <b>TOLOSA</b>               | GOIERRI                   | TOLOSA          | GIPUZKOA |
| <b>URKIOLA</b>              | IBAIZABAL DEBAGOIENA      | ABADIÑO         | BIZKAIA  |
| <b>USURBIL</b>              | DONOSTIALDEA              | USURBIL         | GIPUZKOA |
| <b>VALDEREJO</b>            | EAEKO ERRIBERA            | GAUBEA          | ARABA    |
| <b>ZALLA</b>                | ENKARTERRI-NERBIOI GARAIA | ZALLA           | BIZKAIA  |
| <b>ZELAIETA PARKEA</b>      | IBAIZABAL DEBAGOIENA      | ZORNOTZA        | BIZKAIA  |
| <b>ZIERBENA (PUERTO)</b>    | NERBIOI BEHEREA           | ZIERBENA        | BIZKAIA  |
| <b>ZUBIETA</b>              | DONOSTIALDEA              | DONOSTIA        | GIPUZKOA |
| <b>ZUMARRAGA</b>            | GOIERRI                   | ZUMARRAGA       | GIPUZKOA |